

Asteartea, maiatzak 29 (San Maximo eguna)

20:00 San Maximoren, gure auzoko Patroiaren omenezko meza.

Ostirala, ekainak 1 (Lamiakoko Maskaradaren eguna)

16:30 **Txupinazo handia eta 2012ko San Maximo jaiak hasten dira!!!**
17:30 **Maskaradaren lehen zatia** hasten da (Putzegilearen biribilgunea). Animatu eta etorri katera.
18:30 **Maskaradaren 2. zatia** (Lamiaren plaza).
20:00 **Jaien pregoia** (eszenatokia)
20:15 **Leioako Errekalde Abesbatza**, ahotsik onenak auzora datoz berriro.
21:00 Pasatu txosnatik kalimotxo batzuk hartzera Maskaradaren 3. zatia hasi aurretik.
22:30 Maskaradaren 3. zatia hasten dela, arin, korrika egin zure lekuaren bila!!! (Athletic parkea)
00:00 Gorputza mugitzera **Koskor taldearekin dugun dantzaldian!!!**
02:15 Dantzaldiaren atsedenean, erakutsi zure dohainak **irrintzi txapelketan!!!**
02:30 Parrandarako gogorik baduzu oraindik, prest, dantzaldia dator berriro.
04:30 Txosnan andela bete, eta parranda aurrera doa.

Larunbata, ekainak 2 (Txikiak Dantza Taldearen eguna)

10:00 **Txupinazoa!!!** Denok gora, egun berri bat dugu aurretik.
11:00 Etorri etxeko txikienekin **gatzelu puzgarriez** gozatzera. Gainera. Umeentzako aurpegi-makillaje tailerra egongo da.
11:30 Oraindik etxean? Animatu eta hasi poteatzen.
12:00 Poteatzen duzun bitartean, harri zulatzaileen erakustaldia ikusi, zur eta lur geratuko zara (txosnan).
12:30 Mantala jarri eta suak piztu!! **Sukaldaritza lehiaketa**, paellak eta tortillak.
13:00 **Leioako Musika Banda** (eszenatokia)
14:30 Nondik zabiltzate?? Zuen sukalde lanak entregatu behar dituzue!
16:00 Zelan daukazue punteria? Ba etorri erakustera **Nazioarteko Tiragoma Txapelketan!!** Estatuko Txapelketarako balio du (txosnan)
16:15 **Lamiakoko Areto-Futboleko III. Lehiaketa, final erdiak**, 3. eta 4. postuak, Athleticen parkea.
17:30 **Final Handia**. Aurreko partidua ikusi duzu eta ez duzu finala ikusiko? Sinestezina!!
18:45 **Euskal Dantzen Alardea**, Athleticen parkean. Lamiakoko Txikiak taldea inguruko talde onenak gonbidatzen ditu dantza adierazgarriekin goza dezagun.
19:30 Zure irudimenarekin harritu gaitzazu, **Mozorro Lehiaketa** hasten da-eta (txosnan)
20:00 Txorizoa sagardo-puntuarekin dastatzera gonbidatzen zaituzte batzordeak. Ez galdu!!!
21:00 Isilaraz itzazu txarto abesten duzula diotenak eta parte hartu gure **Karaoke Txapelketan** (txosnan)
22:30 **Oliver Magoaren Ikuskizunera** etorri. Umorea, dibertsioa eta magia ugari...
00:00 **Disko-dantzaldia Galder taldearen eskutik**. Abesti bikainen erritmoarekin mugituko duzu gorputza.

Igandea, ekainak 3 de (Lamiakoko eguna)

10:00 **Txupinazoa!!!** Aupa neska-mutilak! Azken ahalegina.
11:00 Txikientzako **gatzelu puzgarririk** onenak dauzkagu eta **globoflexia tailerra**, euren kreazioekin aho bete hortz geratzeko.
12:30 Dantzatu eta poteatu auzotik, **trikitixaren** erritmoarekin.
12:45 **Igel-tokako XXXIV. Mundu Txapelketa**. Atzo zure punteria ikusi genuen, baina gaur zailago edukiko duzu. Etorri eta frogatu onena zarela (txosnan).
13:30 **Eskualdeko Txapela Jaurtiketako IIX. Lehiaketa** (2012ko Olinpiarretarako balio du)
15:00 Denok bazkaltzera, energiak berreskuratuzera.
16:45 **Lamiakoko XXIII. Play-back lehiaketa**. Ez dago adin mugarik (eszenatokian)
18:00 **60, 70 eta 80. hamarkadetako onena duen Goatekea**. "Mr. Iker Fernández" **Speaker-DJrekin**
19:30 **Herri Txokolatada Handia**
20:00 **Sari banaketa**, zerbait irabaziko al duzu?
21:00 **Azken petardo-sorta eta 2012ko jaien bukaera**. Zuek gozatu izana espero dugu.